# baikara

Gipuzkoako IGEen federazioa

**Donostia · Gipuzkoa**

Mayo 2022ko Maiatza



## Euskal Eskola Publikoaren 29. Jaia Labastidan



### DONOSTIA

Hondalea reabre sus puertas con la llegada del verano



### ACTUALIDAD

Elkarrizketa Imanol Andetxaga Baikarako Presidentearekin

# Mintza POZA
PRAKTIKATU

Zer da zuretzat MINTZAPOZA?
mintzalaguna.eus

ELKAR ZAINDUZ
ERANTZUKIZUNEZ

# Bizi zaitez MintzaPozez

Elkartu beste guraso eta haurrekin
familian euskaraz aritzeko



EGIN ZAITEZ

**GURASO-LAGUN!**

mintza laguna

## IZEN EMATEA

**URRIAREN 1ETIK 18RA**

BAGERA Elkartea / Hernani kalea 15, behea
943 005 074/688 820 195/mintzalaguna@bagera.eus
www.bagera.eus

Antolatzailea
bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea

Sustatzaileak
Donostia San Sebastián Euskara
euskaltzaleen topagunea

Babeslea
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Departamento de Cultura y Política Lingüística

Laguntzaileak
urrats euskaltegia
Legazpi 6 euskaltegia
aek
hitzez euskaltegia
Ilazki euskaltegia
Urumea euskaltegia
Heoi

# aurkibidea índice

## donostia

04-08




**p. 4** **33. Gazteen Antzerki Topaketa**

p.5 Udako jarduera autogidatuen eskaintza zabala

p.6 Hondalea reabre sus puertas con la llegada del verano

p.7 Erremontearen kirola ikastetxeetara hurbiltzen duen programa

p.8 Breves-Laburrak

## gipuzkoa

09-15




**p.9** **Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren Kanta**

p.10-11 Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren Egitaraua

p.12-13 7ª edición de Eskola Digitala

p.14-15 Imanol Andetxaga: “Ikasleak jatorriaren edo gizarte-egoeraren arabera bereiztea da euskal hezkuntza-sistemaren arazo nagusietako bat”

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Hezkuntza Educación

## BAIKARA FEDERAZIOA

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello **BAIKARA** es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkarteen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, **BAIKARA** da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziazioetan eta eztabaidetan.

**www.baikara.org** **Baikaragurasoak** **@BaikaraF**

ARGITARATZAILEA: BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.
e-mail: baikara@baikara.eus / rosa@baikara.eus

Koordinatzailea: Rosa Izquierdo. Diseinua: Ane Galdos. Inprimatzailea: Comeco Gráfico. Lege gordailua: ISSN 1697-9109

# 33 MUESTRA DE TEATRO JOVEN

## La entrega de premios se llevará a cabo el 18 de junio










Son ya 33 las ediciones organizadas por Donostia Gazteria que cuenta este año con la colaboración de Donostia Kultura y Kutxa Kultur. La 33 Muestra de Teatro Joven de Donostia / San Sebastián presenta 24 obras de teatro en diferentes espacios de la ciudad entre el 16 de Mayo y 15 de Junio. De esta forma, jóvenes de entre 14 y 30 años de 24 compañías representan sus obras de forma profesional en reconocidos escenarios de la ciudad como son el Teatro Principal, la Sala Club del Victoria Eugenia, Gazteszena, Lugaritz, Kutxa Kultur Kluba y Kontadores.

A través de esta iniciativa se pretende promover el contacto entre la juventud y el teatro, ya que durante la muestra tienen la oportunidad tanto de interpretar y de crear como de acudir en calidad de público a las diferentes funciones. De esta forma, además, se fomenta entre la juventud la costumbre de acudir a actos culturales. Para las compañías no profesionales La Muestra se convierte además en soporte de difusión de su producción cultural gracias a que son tres las entidades colaboradoras. Sin olvidar la creación de materiales de marketing específicos para ello. Las obras son tanto de producción propia como representaciones de clásicos, y de su valoración se encarga el jurado compuesto por las actrices Aia Kruse y Nerea Gorriti y el actor Asier Oruesagasti. La entrega de premios se llevará a cabo el 18 de junio.

El precio de las entradas es de 3€. Las de los escenarios de Donostia Kultura, esto es, Victoria Eugenia, Teatro Principal, Gazteszena y Lugaritz están disponibles en:

- La página web de **www.donostiakultura.eus**
- En la taquilla del espacio en la que se represente la obra

Las entradas para las actuaciones de Kutxa Kultur Kluba y Kontadores se pueden adquirir el mismo día en la taquilla de cada espacio.









# UDAKO JARDUERA AUTOGIDATUEN ESKAINTZA ZABALA

## Cristina Enean, Ulian eta Urgullen izango dira.



Aurtengo udako hileetan nork bere kabuz egiteko jarduera gidatu-eskaintza zabala eskainiko die familiei Cristina Enea Fundazioak. Jarduerak inongo hitzordurik hartu gabe eta bakoitzak nahi duen egun eta orduan egin ahalko dira, bai Cristina Eneako parkean, bai eta Ulia eta Urgull mendietan. “Pandemia iritsi zenean ikusi genuen ezin genituela taldeekin jarduerak antolatu, indarrean zeuden osasun- eta segurtasun-neurriak zirela eta, eta horrexegatik hasi ginen diseinatzen nork bere kabuz egiteko ekintzak” azaldu du Cristina Enea Fundazioko hezkuntza saileko teknikari Uxua Aranak, eta gaineratu du horren “emaitza eta balorazio onak” jaso zituztenez, jarduera horiek eskaintzen jarraitzen dituztela oraindik ere. “Batik bat bi jarduera dira familiek beren kabuz egin ditzaketenak: Altxorraren bila jolasa eta orientazio zirkuituak”, biak ala biak, Cristina Enean, Ulian eta Urgullen egin daitezkeenak.

Altxorraren bila jolasari dagokionez, familiek pista-sorta bat jarraitu beharko dute amaierara iristeko. “Hiru kokaguneetan pista mota ezberdinak jarri ditugu, baina guztiek dute komunean natura eta historia uztartzen dituztela”, kontatu du Aranak. Hala, Cristina Eneako kasuan, bertako ingurumenaz ez ezik, Mandasko duke-dukesaren bizitzaz ere gehiago ezagutzeko probak ezarri dira; Urgullen, kokaleku horrek gerra napoleondarretan jokatu zuen paperari buruzko pistak dira, eta Ulian, aldiz, belle-époque garaian mendi horrek izan zuen erabileraz, besteak beste.

Familiek beren kabuz uda honetan egin ahalko duten bigarren jarduera orientazio zirkuituak dira. *“Jarduera honek kirol-kutsu gehiago dauka, eta lehiaketa gisa har dezake batek baino gehiagok, baina gure helburua da jolas moduan erabiltzaileak ingurumen-aberastasun handiko eremuetan murgiltzea eta hobeto ezagutzea ingurune horiek”* zehaztu du Cristina Enea Fundazioko ingurumen-teknikariak. Horretarako, hiru zailtasun maila desberdineko zirkuituak diseinatu dira Cristina Enean, Ulian eta Urgullen. *“Mailarik errazenarekin familiek lehenengo kontaktua eduki dezakete orientazio-zirkuituekin; maila ertainarekin gehiago sakontzeko aukera eskaintzen diegu, eta maila aurreratuenarekin ibilbide luzeagoa egin eta aurkitzen zailagoak diren balizen bila joan beharko dute partehartzaileek”.*

Bi jarduerak -Altxorraren bila jolasa eta orientazio zirkuituak- erabat doakoak dira. Planoak eta mapak eskuragarri daude **www.cristinaenea.eus** webgunean, edota Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Ulia Interpretazio Zentroan eta San Telmo Museoan.

Informazio gehiago **www.cristinaenea.eus** webgunean eta 943453526 telefono zenbakian.



# HONDALEA REABRE SUS PUERTAS CON LA LLEGADA DEL VERANO

## La visita será totalmente gratuita, aunque deberá realizarse reserva previa en www.hondalea.eus



Hondalea abrió de nuevo sus puertas el pasado 1 de junio, por lo que el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ha habilitado ya el sistema de reservas para visitar la obra situada en la Casa del Faro a través de www.hondalea.eus. El concejal de Cultura Jon Insausti ha recalcado que "la reapertura de la obra de Cristina Iglesias representa de nuevo un hito para la ciudad, pero además, si lo unimos con la exposición de Chillida y Oteiza en San Telmo y la exposición de los 70 años del Zinemaldia, conseguimos un verano cultural muy intenso, como llevamos haciendo los últimos años".

### RESERVAS

- La obra podrá visitarse del 1 de junio al 30 de septiembre en horario de 11:00h a 18:30h, con una frecuencia de visitas ininterrumpida cada 30 minutos y con un máximo de 20 personas por turno.

- La visita será totalmente gratuita aunque deberá realizarse reserva previa en www.hondalea.eus.

- El traslado a la isla se realizará a cuenta de los o las visitantes.

**También será posible realizar visitas guiadas**

- Del 01 de julio al 11 de septiembre.

- De 11:00h a 13:00h o de 16:00h a 18:00h.

- Las visitas, que se ofrecerán en distintos idiomas, tendrán dos horas de duración.

- Un precio de 25 euros, incluyendo guía y transporte de ida y vuelta a la isla (vuelta al puerto abierta).

- Las visitas deberán ser de entre 8 y 20 personas y será necesaria reserva en la página web.



Del 16 de mayo al 30 de junio, y del 12 de septiembre al 31 de octubre, se realizarán además visitas escolares o socioculturales con actividades didácticas de lunes a viernes, de mañana y tarde con grupos previamente concertados. Las reservas para estas visitas específicas deberán realizarse directamente con el Departamento de Educación de Cristina Enea en el 943 453526 o en cristinaenea@donostia.eus.

Estas últimas visitas cuentan además con la colaboración de la Fundación La Caixa, entidad que subvenciona el programa de visitas escolares y ofrece becas para el transporte a la actividad a aquellos centros que no cuenten con recursos para ello.




# ERREMONTEAREN KIROLA IKASTETXEETARA HURBILTZEN DUEN PROGRAMA



## Grabazioak astelehenero egiten dira, ekainaren 20ra arte

Donostiako Udaleko Hezkuntza Atalaren eskutik Ikasleekin Erremontari saiora bertaratzeko gonbitea jaso dute ikastetxeek.

**Zein da ikastetxeak gonbidatzeko helburua?**

Helburua, alde batetik, ikasleek modalitatea barrutik ezagutzea da. Pilota, oro har, ikastetxeetan modu “masiboan” egiten ez den kirola da; izan ere, derrigorrezko multi-kirolean ez da pilota modalitaterik sartzen. Hortaz gain, ospetsuena esku pilota da astebururo telebistan duen agerpenarekin, baina badira beste modalitate batzuk, erremontea adibidez, gazteentzat erabat ezezagunak direnak. Bestalde, gazteek telebistako saio bat nola sortzen den ikusteko aukera izan dute. Aurkezleak, elkarrizketak, teknikariak, argiak, kamera… dena kantxa barruan eta baita kanpoan ere. Esperientzia ezberdin bat da “kamera atzean” egiten den lana aurrez aurre bizitzea, eta grabaketari nahiz saioari orokorrean forma nola ematen zaion ikustea.




**Nolakoa da frontoian esperientzia?**

Ikastetxeak grabaketa hasi baino ordu erdi lehenago sartzeko aukera izan dute, horrela pelotariek azalduko diete jakin beharrekoa erremontearen inguruan: zesta, pilota, jokoaren arauak… eta frontoiaren inguruko bitxikeriaren bat! Gainera jokoan erabiltzen dituzten pilota eta zestak ukitzeko aukera izan dute, hauen pisu eta gogortasuna sentitzeko.

Honen ondoren, saioaren grabaketarekin zer ikusia duten funtzioak esplikatuko zaizkie: aurkezleak non izango diren, elkarrizketen seta, teknikariak, nola eta zergatik egiten diren grabaketan geldialdiak…

Gainera, 14 urtetik gorako gazte gehienek mugikorra dutenez, partiduan zehar Galarretaren sare sozialetara argazkiak igotzea gonbidatu ditugu, beranduago zozketa bat egiteko “argazki politena” saritzeko. Arratsalde guztian giroarekin “lotuta” mantentzeko.

# BREVES / LABURRAK

## ENTREGA DE PREMIOS "ARTE Y DERECHOS HUMANOS"

El Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián, a través del área de Derechos Humanos celebró la entrega de premios de la 18ª edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos, el pasado mes de abril, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento. En esta edición, los niños, las niñas y jóvenes participantes han presentado casi 1500 trabajos individuales y colectivos, representando sus reflexiones sobre el medio ambiente. En total han participado 25 centros, entre colegios, haurtxokos y academias de arte y, otras 16 personas que se han presentado por libre con sus pinturas y murales. Además, también se publicará el libro "Bazen behin irudi bat..." que contiene, como viene siendo habitual, una selección hecha por el jurado oficial de entre todos los dibujos presentados, además de los dibujos premiados. La finalidad de esta publicación está en que toda la ciudadanía pueda disfrutar y sorprenderse de la imaginación, solidaridad, calidad humana y artística de los niños, niñas y jóvenes de esta ciudad y de otras.



## SUBVENCIONES A LOS CENTROS EDUCATIVOS

Bases publicadas en el BOG el día 3 de mayo (nº 82). El plazo para presentar las solicitudes a las subvenciones a los centros educativos y a las asociaciones vinculadas a la enseñanza 2022 finaliza el lunes 6 de junio, excepto para las solicitudes presentadas en el grupo 6, que se presentarán antes del 30 de septiembre.

**Qué presentar**

Se presentará una solicitud diferente para cada grupo, y el formulario deberá cumplimentarse en su totalidad. Se acompañará con el anexo del presupuesto.
- Certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias (Hacienda y recaudación municipal), y frente a la Seguridad Social, en el caso de no autorizar en la solicitud su comprobación de oficio.



## AURTEN ERE "OPORRETAN EUSKARAZ"

Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, Oporretan Euskaraz udaleku irekiak antolatuko ditu uztailaren 4tik 29ra. Udako jarduera honen helburua da euskararen erabilera sustatzea haurrengan. Horrez gain, beste zenbait helburu ere izango ditu udalekuak: haurren nortasuna eta autonomia garatzea, pertsonen arteko aniztasuna kontua hartu eta estereotipoak gainditzea, ingurunea ezagutu eta naturarekiko errespetua sustatzea eta abar.

2022ko udako jarduera honetan 2011tik 2017ra bitartean (bi urte hauek barne) jaiotako haur donostiarrek parte hartu ahal izango dute. Taldeak hizkuntza ereduaren, jaiotze urtearen eta jasotze puntuaren arabera eratuko dira. Udalekuak astelehenik ostiralera eta 09:00etatik 13:30era izango dira. Aurten ere, 08:30etik 9:00etara zaintza zerbitzua eskainiko da eta haurrak jarduera hasi baino lehen, 08:30ean, eraman daitezke jasotze puntuetara.



## EMUSIK 2022 KALERA ITZULI DA

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Jaialdia joan den maiatzean egin zen, oso edizio bereziarekin, bere jatorrizko formatua berreskuratzen baitzuen pandemiaren ondoren kalera itzuliz. 500 ikasle baino gehiago igo ziren eszenatokira jaialdiak iraun zuen lau egunetan, publiko orokorrari zuzendutako emanaldiekin, doakoak eta neurketarik gabeak.

Musikako ikasleek ikastaroan ikasitakoa praktikan jarri zuten, eta guztira 22 taldek hartu zuten parte: bandak, koroak, orkestrak, konboak eta big bandak.

Aurtengo EMUSIK jaialdian gonbidatu berezi batek hartu zuen parte: Ejea de los Caballeros gazte-taldeak.



2022
**ekainak 5**

euskal eskola publikoaren jaia
**HAZITIK GORA!**
**Bastida :: Arabako Errioxa**

ehige

# HANDITAN

Nik ez dakit oraindik handitan zer nahi deten izan
Baina ikusiko nuke gustu handiz Euskal Eskola Publikotik
datorren edozein hiritar lehendakari
Nik ez dakit oraindik handitan zer nahi deten izan
**(x2)**

Hartu degu ta
Gaizki pasata
Hemendik urteta' ez da berdin egongo
Fandangua ta bombo
Euskal herri combo
Auzotik hasita
Berdintasun nongo (Berdintasuna)
Eskaintzan, kalitate daku'
Eredu honekin, boom bap erantzun
Autosuperazioa
modua sanazioa,
Helburua
ta birsortzea nazioa.
Gure interakzioa aro globalean
Fruitua landatzen, bilatzen gea

Handia espazioa, barruko alean

Ideiak sustatzen munduko sarean
Zabaltzea, aro globalean
Fruitua landatzen bilatzen gea
Handiya espazioa
Barruko alean,
Musika sustatzen
Munduko sarean.

Nik ez dakit oraindik handitan zer nahi deten izan
Baina bai nola nintzen txikitan
ezin ahaztu ze herritan sortu nintzen, klase batean
mundu oso bat ez ahal da kabitzen?
Ez bada sartzen jarri baldintzak, hitzak baino
gehiago esaten du ekintzak
Denona da jakintza, guztia da guztiontzat
Gaurko umeak bihar aukera denak izan ditzan
Batzuk joaten dira eskolara goitik behera jantzita
pilotariz, edo futbol kamiseta bizkarrean 'Nahikari'
Edo ez bata eta ez bestea, ez dago horren beharrik
Hezkuntzak ezin du utzi ume bakar bat atzean
bakarrik
Biharko erizain, baserritar, kazetari, rapero-fisikalari
Eneko Axpe, Marie Curie, Yuri Gagarin, biharko
Laize, biharko Juantxo, biharko Fani

Nik ez dakit oraindik handitan zer nahi deten izan
Baina ikusiko nuke gustu handiz Euskal Eskola
Publikotik
datorren edozein hiritar lehendakari **(x3)**

Arabako Errioxa! **(x2)**
Ez dugu ahaztuko gure hizkuntza maitea
Zaindu dezagun denon artean
hainbeste urtez izan dena
gure territorio librea

**HAZITIK GORA! (x3)**

2022
**ekainak 5**

euskal eskola publikoaren jaia

# HAZITIK GORA!

**Bastida :: Arabako Errioxa**

ehige



## EGITARAUA

### 1 ESKOLA ETA IRAKASLEEN PLAZA

**11:00**
**Irekiera ekitaldi ofiziala**

**13:00**
**Elikagaien taupadak**
Antzerkia - Kaiku

**16:00**
**Antxo eta Pantxa:**
“Antzarrekin dantzan” antzerkia

### 2 PLAZA

**22-06-04**

**16:00**
**Bisita gidatuak**

**17:00**
**Umeentzako tailerrak**

**20:00**
**Garilak 26**
Erromeria

**22-06-05**

**12:00**
**Ez da kasualitatea**
Bertso musikatuak

**16:00**
**Alarma morea**
Kontzertua

**18:00**
**Korrontzi**
Kontzertua




## 3 MUGAZABAL GUNEA

**12:00**
**Pirritx, Porrotx eta Marimots:**
"Kuikui"

**13:00**
**Zeta zapi tailerra**

**15:00**
**Gora Bihotzak!**
Antzerki musikala - Eidabe

**17:00**
**Iratxoen kantu sekretuak eskola publikoan**
Ikuskizuna - Gookapi

**EGUN OSOAN**
**Puzgarriak / Rokodromoa eta kutxa dorrea - El Correo / Trukarec, arropa birziklatzeko tailerra / PAI jolas kooperatiboak / Errealitate areagotudun txokoa**

## 4 TOLOÑO GUNEA

**13:30**
**Ene kantak**
EITB

**EGUN OSOAN**
**Puzgarriak / Elikadura eskola-Eroski / Antxus maskotarekin photocolla - EITB**

## 5 DOLARE GUNEA

**11:00**
**Perkusio tailerra**
(Jai plaza)

**11:00**
**Grafitti tailerra**
(Frontoia)

**13:30**
**Trapu Zaharra:**
"Turistreatzen" kale antzerkia
(Jai plaza)

**14:30**
**Perkusio tailerra**
(Jai plaza)

**EGUN OSOAN**
**Standak Florida kalean: Euskal Eskola Publikoaz Harro, Naizen, OOE, Eskola marka...**

## 6 IBILTARIAK

**12:00**
**Txalaparta tailerra**
(Koben paseoa)

**12:30**
**Trikitilariak**

**13:00**
**EH11 kolore kalejira**
(Varajuela kaletik)

**13:00**
**Aburrecalles txaranga**

**13:30**
**Magia poteoa**

**15:00**
**Zozongo**
Kale-perkusioa




# 7ª EDICIÓN DE ESKOLA DIGITALA

## En el encuentro participaron, entre otros, los centros guipuzcoanos de Orokieta y Lizardi




Organizadas por primera vez en 2015, Eskola Digitala son unas jornadas para profundizar en la innovación digital y metodológica de la Escuela Pública Vasca. Su objetivo es ofrecer al profesorado, a los equipos directivos y a las familias una mirada mutua a los fructíferos procesos de digitalización de los centros públicos.

A finales del pasado mes de marzo se celebró la séptima edición de manera presencial, aunque también hubo ocasión de seguir las conferencias a través de vídeo streaming. Esta edición estuvo centrada en cinco ejes principales:

- Los diferentes roles de las personas en la enseñanza digital y su importancia: profesorado, alumnado y familias.
- Compensación de las diferencias existentes en los centros (también) en el ámbito digital
- Consolidar la presencia del euskera en el ámbito educativo digital.
- Dimensiones interrelacionadas de sostenibilidad, desarrollo, innovación educativa y dependencia tecnológica.
- Publicidad, calidad educativa, investigación y toma de decisiones eficaces.

En el encuentro participaron, entre otros, los centros guipuzcoanos de Orokieta y Lizardi, ambos de Zarautz, que

tuvieron la oportunidad de compartir con la comunidad educativa las buenas prácticas que están llevando a cabo en sus centros.

Las personas representantes de la ponencia de Lizardi BHI fueron Jaione Urreizti y Arantza Zubillaga. *“La competencia para aprender a aprender, la competencia para la comunicación verbal, la competencia para la convivencia y la competencia para la iniciativa y el espíritu emprendedor han sido promovidas y reforzadas y tratadas de manera integral desde una perspectiva metodológica eficaz y acorde con la sociedad en la que vivimos: las tecnologías de la información y la comunicación, siempre en beneficio del proceso de aprendizaje y enseñanza”*, señalaron las ponentes.











# "IKASLEAK JATORRIAREN EDO GIZARTE-EGOERAREN ARABERA BEREIZTEA DA EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN ARAZO NAGUSIETAKO BAT"

**1.- Nola baloratzen duzu Covid 19 prebentzio-protokoloek eskola publikoetan azken ikasturte honetan izan duten eragina?**

COVID-19ari aurre egiteko protokoloek ezarritako arauek, ikasturtea mugatu dute dudarik gabe. Antolaketa, oro har, aurreko ikasturtekoaren antzekoa izan da eta ia ez da aldaketarik egin 2022ko apirilera arte, non egoerak aukera eman baitu neurriren bat malgutzeko. Zuzendaritza taldeen, irakasleen, ikasleen eta familien erantzukizuna eta konpromisoa azpimarratuko nituzke. Horri esker, eskolak irekita mantendu dira eta ikasturtea aurrez aurre egin da.

Eskolaz kanpoko jarduerak eta, bereziki, goizeko zaintza-zerbitzuak antolatzea eta abian jartzea gurasoen ahalegin pertsonal eta ekonomikoari esker egin ahal izan da. Guraso Elkarteek kontziliazioa errazteko erakutsi duten konpromisoak merezi du, zalantzarik gabe, nire aitortzarik zintzoena.

**2.- Zer iritzi duzu euskal hezkuntza-sistemaren azken txostenei buruz?**

Euskal hezkuntza sistemaren adierazleak, oro har, ez dira onak, edo ez dira espero zitekeen bezain onak. Euskeraren ezagutza eta erabilera moteltzen ari da eta irakurtzeko gaitasun maila eta gaitasun zientifiko mailarekin kezkatuta gaude. Ez dugu autokonplazienteak izan behar emaitzek adierazten dutenean Estatuko batez bestekoan gaudela. Urrun gaude Europako helburuak lortzetik., beraz egoerak diagnostiko eraginkorra eta emaitzak hobetzeko neurriak eskatzen du.

**"Guraso Elkarteek kontziliazioa errazteko erakutsi duten konpromisoak merezi du, zalantzarik gabe, nire aitortzarik zintzoena."**

**3.- Ikasturte honetan ordenagailu eramangarriak eman zaizkie ikastetxe publikoetako lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei. Uste duzu hezkuntza sistemaren digitalizazioak behar bezala egiten duela aurrera?**

Konfinamenduan agerian geratu zen digitalizazioaren ezarpen eskasa

Hezkuntza sistemako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan. Ikasleentzako ordenagailu eramangarrien hornikuntzaiz gain, beste hezkuntza-baliabide batzuk behar dira: euskarazko edukien plataforma irisgarriak eta irekiak, irakasleen formakuntza, eskolen heldutasun teknologikoan aurrera egitea eta familientzako prestakuntza; hau da, digitalizazio



Elkarrizketa Imanol Andetxaga Baikarako Presidentearekin

**"Konfinamenduan agerian geratu zen digitalizazioaren ezarpen eskasa Hezkuntza-sistemako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan."**

integraleko plan bat. Urratsak ematen ari dira norabide horretan, baina desiragarria litzateke baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago izatea.

**4.- Eskolatze desoreka Hezkuntza Sisteman gainditu gabeko ikasgaia da oraindik?**

Bai, zoritxarrez hala da. Ikasleak jatorriaren edo gizarte-egoeraren arabera bereiztea da euskal hezkuntza-sistemaren arazo nagusietako bat. Urteak daramatzagu ikasleen eskolatze desoreka gero eta handiagoa dela salatzen. Eskola segregazioak Hezkuntza sisteman duen ondorio negatiboa ezin da ukatu. Funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe pribatu-itunduek egoera

zaurgarrian dauden ikasleak eskolatu behar dituzte neurri berdinean, eta botere publikoei eta hezkuntza-administrazioari dagokie legea betearaztea.

**"Azken urteotan, agerian geratu da ikaspostuak planifikatzeko ereduak ez diela behar bezala erantzuten eskolatze desoreka arazoari"**

**5.- Duela gutxi, alderdi politikoek hezkuntza-sistemaren erreformarako oinarriak onartu dituzte. Hezkuntza-itun horrek eskola publikoaren asmoak jasotzen al ditu?**

Testu horrek huts egin digu. Nagusiki, kritiko agertzen gara dokumentuan jasotzen den hezkuntza-sistemaren definizioarekin. Europako hezkuntza panoraman anomalia izateari utzi nahi badiogu, hezkuntza publikoa erdigunean jarri behar da lehenik, eta hezkuntza publikoa hezkuntza sistemaren ardatz egituratzailea dela aitortu, esplizituki eta eufemismorik gabe. Printzipio horrek bideratu behar ditu hezkuntza sistemaren egituraketa eta araudia. Ez da gauza bera ikastetxe publiko bat edo ikastetxe pribatu edo itundu bat, eta, beraz, ezin dira plano berean kokatu. Ez dira gauza bera, eta ez dute funtzio bera betetzen.

Hala ere, itunak datozen urteetarako jarduera plan bat jasotzen du, eta, horien artean, eskola- segregazioari aurre egiteko neurriak nabarmentzen dira. Lehen adierazi bezala, egoera zaurgarrian dauden ikasleak eskolatzean dagoen desoreka, hezkuntza sistemaren arazo nagusietako bat da, beraz zentzu horretan, eskola segregazioari aurre egiten laguntzen duen neurri guztiak positiboak dira.

**"Hezkuntza Sailak 2022-2023 ikasturterako ezarritako plangintzak alarma guztiak piztu ditu, egiaztatu baitu ez zetorrela bat benetako eskolatze beharrekin"**

**6.- lurraldean ikaspostu publikoen eskaintza eskasa salatu dute Gipuzkoako ikastetxeek eta Baikara Federazioak.**

Azken urteotan, agerian geratu da ikaspostuak planifikatzeko ereduak ez diela behar bezala erantzuten eskolatze desoreka arazoari. Ez datoz bat benetako eskolatze beharrekin eta ikastetxe pribatu-itunduei egiten diela mesede, ikastetxe publikoen kaltetan. Azken hamarkadan jaiotza-tasa izugarri jaitsi da, % 30 baino gehiago, eta horrek arazoa areagotu besterik ez du egin. Hezkuntza Sailak 2022-2023 ikasturterako ezarritako plangintzak alarma guztiak piztu ditu, egiaztatu baitu ez zetorrela bat benetako eskolatze beharrekin. Errealitate demografikoari eta egoera zaurgarrian dauden ikasleen integrazio orekatuari erantzungo liokeen plangintza diseinatu beharrean, ikastetxe pribatu-itunduetako ikaspostuen gain eskaintza mantentzen da eskola publikoaren eskaintza mugatuz. Laburbilduta, eskola segregazioa betikotzen du. Hori dela eta, Gipuzkoako ikastetxe publikoek eta Baikara Federazioak jendaurrean salatu dute egoera, eta Hezkuntza Sailari eskatu diote alde batetik eskolatze beharretara egokitutako plangintza egin dezala eta bestetik ikaspostuen eskaintzaren erdia gutxienez, eskola publikoari dagokiola bermatzea.



29.edizioa

2022
**ekainak 5**



**euskal eskola publikoaren jaia**

# HAZITIK GORA!

**Bastida :: Arabako Errioxa**

Antolatzailea

ehige

Babesleak

araba álava foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de Labastida

Bastidako Udala

Vital Fundación · Fundazioa

eitb